

Gregorio Montero

Baso-Zientzien
Elkarteko Presidentea

“Gure basoak gaixo
daude, kolesterola dute”

Abizenak gaztelaniaz ‘mendikoa’ esan nahi du eta hantxe, mendian ibili da lanean gazte-gazterik zituenetik Gregorio Montero. Mendi-ingeniaritza ikasi zuen eta Nekazaritzako Elikagaien Ikerketarako Institutuan lortu zuen lana. 18 liburu argitaratu ditu eta milaka arbola landatu. Teoria eta praktika, biak ezagututa iritsi da Baso-Zientzien Espainiako Elkarteko presidente izatera. Basoa bermatzeko modua arduraz ustiatzea dela uste du.

Umea ekarri, liburua idatzi eta zuhaitza landatu behar dela esaten da. Arbolak landatu, landatu dituzu! Milaka batzuk, bai. 18 liburu idatzi eta bi seme ekartzeaz gain. Zorte oneko naiz.

Maite behar ditugu maite mendiak eta basoak. Baina zergatik? Zuhaitzek bizi gaituztelako. Landareek ez balute lana egingo, agur gure funtsa, oinarria, dena. Kate trofikoak ahautsi eta dena pikutara. Ekosistema da birsortzeko gai den azken unitate independentea eta lurreko azken bizitza autonomoa landareak dira. Ezin dugu beraiek gabe existitu.

Zaintzen ditugu behar bezain beste? Arriskuan daudenean, orduan jartzen diegu arreta. Mehatxua datorrenean, orain klimaren aldaketarekin bezala, orduan erantzuten du gizarteak.

Orain bai, beraz, orain ari gara basoari begira. Bai, ze badirudi klima aldaketarekin basoa eta orohar izadia arriskuan egon litezkeela. Espainiako leku lehorrenetan, adibidez, zenbait zuhaitz espezie desagertu litezke. Frogatuta dago arbolak klimaren aldaketaren biktima izan daitezkeela baina konponbidearen parte ere badira. Datu bat, Espainian dagoen CO₂aren % 20a zuhaitzek xurgatzen dute. Gainera, zuhaitzetatik eratorritako produktuak, guztiok erabiltzen dugun egurra, esaterako, CO₂aren zirkuitotik ateratzen da. Eta ez bada egoki birziklatzen atmosferara itzultzen da, CO₂ moduan. Karbonoaren zikloa horixe da.

Balio ekologikoaz eta paisaiarentzat dutenez gain, balio ekonomikoa dute zuhaitzek. Uste duguna baino handiagoa. Espainian, 17 milioi metro kubiko baso ebakitzen dira eta 32 milioi kontsumitu. Behar dugun guztia ekoizteko gaitasuna badago baina zaila da, topografia oztopo da zenbait lekutan, horrek egurra garestitu egiten du. Gainera, Espainian biodibertsitatea harrigarria da, Europa osoan dauden zuhaitz espezieen erdia aurki daiteke bertan eta hori mantentzeko ezin edozer, edonon landatu. Era berean, nik uste zenbait basotan gehiago moztu beharko litzatekeela. Biomasa gehiegi pilatzen da, basoa belar, zuhaizka eta halakoez betetzen da. Horregaitik diot nik kolesterola duela basoak, leku askotan biomasa gehiegi dago eta garbitasun falta.

Nola sendatzen da gaixo honen kolesterola? Kontzientzia hartu behar da, lehenik eta behin. Biomasa gehiegi dugu eta basoak zikin. Zergatik? Baso askok ez dutelako interes ekonomikorik eta ez delako eskua sartzen. Horregaitik erretzen da urtero horrenbeste mendi, na-

“Estatu Batuetan baino diru gehiago gastatzen dugu suteak itzaltzen baina prebentzioa falta zaigu”

hiz eta suhiltzaile zerbitzu ezin hobea dugun. Estatu Batuetan baino diru gehiago gastatzen dugu suteak itzaltzen baina prebentzioa falta! Basoak, nolabait esatearren, erregaia du soberan eta horrek arriskua dakar eta dirua gal arazten digu. Soberan dagoena moz-tuko bagenu bioenergia sortzeko erabil genezake baina ez da egiten, enpresek ez dutelako negozio hori argi ikusten.

Posible litzateke, beraz, basoa ustiatzea eta era berean suteei aurre hartzea. Posible da eta egin egin behar dugu. Apenas geratzen da ja aditurik, ekologista edo mendizalerik eskuhartzearen kontra dagoenik. Eskuhartze arautua, jakina, mailakaturik, iraunkorra... baina eskuhartzea. Lehen ezetz esaten zuten askok, orain behar hori aldarrikatzen dute.

Basoa gehiegi babesten dugu edo ez behar bezain beste? Basoa gehiago ustiatzeko direnek gutxiegi esaten dute eta natura zorrotzago gorde behar dela uste dutenen ustez babestutako baso gutxiegi ditugu. Datuek zer dioten? Europar Batasunak sortutako Red 2000 egitasmoaren bidez babestutako basoaren % 20a Espainiako estatua-ren lurraldean dagoela. Finlandia edo Suediak duen babestutako basoa baino gehiago da hori. Arazoa? Basoaren ja-


bearentzat. Bere basoa babesten dutenean askoz zailagoa zaio ustiaketa eta gastuak handiagoak dira. Oreak behar da, bi interesen artean. Espainian dagoen basoaren % 70a partikularren esku dago, % 28 inguru da udalena da eta % 6 Autonomia Erkidegoena edo Estatuarena. Eta baso horietan uste baino eskuhartze gutxiago dago.

Espainian zuhaitzak falta dira? Lehen bai, orain ez. Kontutan izan behar da nekazaritza asko dagoen lekuan arbolak falta direla eta Mediterraneo inguruan, han dagoen eguzkiarekin eta ura falta ez den lekuetan, nekazaritza asko zabaldu da. Gizakiak jakia behar du eta ahal izan duen leku guztietan basoa kendu eta lurra ereiten saiatu da. Normala! Orain dela gutxirarte logika horrekin jokatu du gizateriak, jakiaren bila ibili da. Artzain-tzak, suteek eta nekazaritzak, horiexek egin diote eraso basoari Historian zehar. XIX. garren mendean, ostera, basoa administratzeko ardura piztu zen, jendea kezkatzen hasi zelako. Hortxe, adibidez, Ramón y Cajal baten hitzak, “landatu ditzagun berriaz gure basoak eta erein gure buruak”. Momentu horretan hasi zen Administrazioa zuhaitzak landatzen berriro, elizaren lurrak eta lur sail publikoak. Lan ederra egin zen. Ondorioak hortxe daude, basoa hobeto dago gaur egun, XIX. garren mendearen erdian baino.

Kutsadura handitu bada ere. Hala ere, bai. Orduan ez zegoen zer kutsatu, horixe zen arazoa. Orain jakien kalitatearekin ditugu arazoak, bai. Baina lehen... ez genuen jakirik!

Zuhaitz gehiago behar ditugu? Behar ditugu eta izan beharko genituzke. Hainbat lur sail daude arbolak landatzeko beharretan baina jabearekin akordioa erdietsi beharko litzateke.

“Egurra, egurra!” Groucho Marxen aldarria zeure egiten duzu? Bai, baina basoa egurra baino gehiago da. Airean eta ura garbitzen ditu, paisaia mantentzen du eta biodibertsitatea bermatu.



Gure heziketa behar bezain ‘berdea’ da? Pertsona askori falta zaie kontzientzia berdeagoa eta beste askok kontzientzia zorrotza dutelako kalte egiten diote basoari, onuragarriak izan daitezkeen neurriek oztopoak jartzen dizkietelako. Nekez pentsatuko dut inoiz ‘berdeegiak’ garela baina denak eskatzen du bere neurria eta ‘berdeak’ saldu egiten duenez batzuetan neurria galtzen dugu. Iraunkortasunarekin, adibidez. Dena da orain iraunkorra. Hau iraunkorra, bestea iraunkorra, bere balioa kendu diogu hitzari, izen ona galdu du. Ekologia, ekonomia eta gizarte-ikuspuntua bateratzea da iraunkortasuna. Baldintza hori betetzen ez duena ez da iraunkorra eta kitto. Baina edozeri esaten diogu iraunkor ‘berdea’ dela esanez datorrena saldu egiten delako.

Zure lanbidearen helburua da iraunkortasuna, hain zuzen. Filosofia horixe da, behintzat. Naturan esku hartzen dugu soberan dagoena kentzeko. Horixe da basoan egiten dugun lanaren oinarria, soberakinak probestea basoa gordetzeko. Teknikarekin bi gauza horiek bateratzea posible dela uste dugu. Arbola zaharra hiltzen denean zuloa uzten du eta zulo horretan 300 arbolatxo jaiotzen dira eta 300 ez dira sartzen. Ekaitzak hiko ditu, edo erori egingo dira edo lekuan ustelduko dira. Guk hil baino lehen hartu eta beste leku batera eramaten ditugu eta basoa, modu apur bat artifizialean ordenatu egiten dugu.

Nola konpontzen zarete ekologistekin? Sasoi baten ez genuen elkar ongi ulertzen. Baina orain asko hitz egiten dugu Greenpeace, Ekologistak Martxan edo Adenarekin. Eta gure zein beraien hausnarketak oso-oso antzekoak dira.

GEHIAGO JAKITEKO
www.consumer.es

“Espainian dagoen CO₂aren % 20a zuhaitzek xurgatzen dute”

